

12. GAIA (AINARA): ESKUBIDE ZIBILAK

1.- ASKATASUN ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEA

1.1. Sarrera.

- Arudia: 17.art: pertsona guztiek dute askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea. Bien arteko lortura hertsia dago, helburua askatasun pertsonala babestea baita, eta era berean, pertsonen segurtasun juridikoa ere. Bestalde, askatasuna mugatu daiteke, legeak horrela aurreikusten duen bakoitzean.

1.2. Askatasun eskubidea.

Lehen aldiz, 1789. urteko eskubideen deklarazioan hitz egin zen eskubide hontaz. Eskubide naturala eta preskribaezina da. Hala ere, eskubide horrek mugak jaso ditzake (askatasuna galdu).

Oinarrizko eskubidea da, eta Konstituzioko 15-29. artikulutan egon arren, eskubide honi buruz beste artikulua batzuk ere hitz egiten dute:

- 1. art: askatasunari buruz hitz egiten du.
- 17.art: zehazten du askatasun eskubidea, esanez eskubide publikoa eta subjektiboa dela, batetik denok egikaritu dezakegulako, eta bestetik, botere publikoei hori egikaritzeko eskatu diezaiekegulako.
- 9.1. art: askatasunaren inguruko erreferentzia bat topatzen da. Izan ere, botere publikoek, norbanakoen eta taldeen askatasuna bermatu eta babestu behar dutela esaten delako. Babesa hori, ezin da soilik arlo teoriko eta abstraktuan eman. Modu eraginkor batean egin behar da. Babesa erreala izan dadin, neurriak hartu ditzake.

Askatasun gabetzea mugak ematen dituenean, 3 botere klasikoek beren parte hartzea egin behar dute:

- Botere exekutiboa: gabetzea behin behinekoa denean.
- Botere judiziala: gabetzea behin betikoa denean.
- Botere legegilea: gabetzearen prozedura adierazteko (nola egin behar den).

1.3. Segurtasun eskubidea.

Eskubide hau, askatasun eskubidearekin erabat lotuta dago. Kontutan hartu behar da horiek urratu daitezkeela legez kontrako neurri mugatzaielak hartzen direnean.

Bestalde, segurtasun eskubidea berme juridiko bat da, boterearen aurrean norbanako guztiek eskatu dezakegun eskubidea baita. Bi gauzarako balio du:

- Askatasun gabetzea ekiditeko (legez kontrako kasuetan).
- Administrazioaren iarduera arbitrarioak eragozteko.

1.4. Eskubide hauen ezaugarriak eta baldintzak.

1.4.1. Askatasun gabetzea salbuespen bezala.

Norbanako guztiok dugunez eskubide hori, mugatzea salbuespen bat da. Askatasun gabetzea ezarri eta arautu dezakeen bakarra botere legegilea da. Eskatzen den beste betebeharrak askatasun gabetze hori arautzen duen legearen forma, Lege Organikoa izan behar dela da.

Beste printzipio garrantzitsu bat da, ezin dela inor zigortu egitatea gauzatu zen garaian, legearen arabera, egitate hori delitua ez zela (ilegala ez zela) esaten bazuten.

1.4.2. Askatasun gabetzea legearen aurkakoa bada. (17.4. art-an jasoa).

Aurreko bi eskubide hauek mugatu daitezke legezko kasuetan. Legezko kasua ez bada, "abeas corpus" izeneko prozedura jarriko da martxan. Hori, legez kontra atxilotua izan den pertsona bat epailearen esku berehala uztean datza. Prozedura horrek, araudi bat du: 6/1984 L.O.

1.4.3. Legezko atxiloketa: 3 maila.

- Prebentziozko atxiloketa: poliziak egingo du, 3 kasutan:
 - ❖ Delitua egiten harrapatzen duten momentuan.
 - ❖ Delitua egin ondoren.
 - ❖ Arrazoi razionalen bat ikusten bada, justifikatzen dutenak pertsona hori delituaegin duela.

Nahiz eta prebentzio egoera baten aurrean egon, ustezko delitugilea da. Hori dela eta, atxilotuak hainbat eskubide ditu (EK 17.3 art eta prozedura kriminaleko 520. art):

- ❖ Atxiloketaren arrazoiak jakiteko eskubidea.
- ❖ Galderak ez erantzuteko eskubidea.
- ❖ Bere buruaren aurka ez deklaratzeko eskubidea.
- ❖ Atxiloketa pertsona baten ezagutzapean jartzeko eskubidea.
- ❖ Itzultzailea izateko eskubidea (atzerritarra bada).
- ❖ Errekonozimendu medikoa izateko eskubidea.
- ❖ Abokatu baten laguntza/asistentzia izateko eskubidea.

Atxilotuta egon daitekeen iraupen gehiena 72h-koa da. Ondoren, 2 aukera daude:

- ❖ Atxilotua aske jarri.
- ❖ Epailearen aurrera eraman.
 - Salbuespena: EK 55.2. art: talde armat edo terrorismo kasuetan epea luzatzen da 5 egunetara (4/88 L.O).

- Behin behineko askatasun gabetzea:

Aurreko kasuarekiko desberdintasun nagusia da, kasu honetan ustezko delitugilea izan beharrean, akusatua izango dela jada. Hala ere, adierazi behar da behin behineko askatasun gabetzea dela, eta ez behin betikoa. Gehien bat, kasu hau ematen da epaiketa prozedura zabala dagoen kasuan eta epaileak ikusten duenean guztia argitu artean komenigarria dela pertsona hori espetxean egotea. Baina ez dago kondena oraindik.

A.K.-ak dio, atxiloketa hau salbuespen egoeratan soilik erabili beharko dela.

- Kondena penalatikoko askatasun gabetzea:

Kasu hontan, kondena badago (epaileak dena aztertu du jada). Hori dela eta, delitugileak askatasun-gabetzea jasoko du.

Behin betiko askatasun-gabetzea izango da honen oinarria, eta ebazpen judizialak beteko du hori. Berme batzuk ditu (EK 25.1-25.2. art):

- ❖ Egitateak ematen diren unean, legeak egitate horiek arau urratze bezala jaso behar ditu.
- ❖ Askatasun-gabetzailearen helburua birgizarteratzea da.
- ❖ Kondenatuaren oinarriko eskubideak errespetatu behar dira.
- ❖ Kondenatuak, ahalik eta murriztapen gutxien jasan behar ditu. Horrek adierazten du, atxilotua dagoen pertsona, bere eskubideak eta nortasuna garatzeko eskubidea duela. Bestetik, kultura bere esku egoteko eskubidea du ere.

2.- BABES JUDIZIALERAKO ESKUBIDEA: PROZESUAREN BERMEAK

2.1. Zer da?

Konstituzioko 24. artikuluan araututa dago. Norbanako guztiek dute eta interesak eta eskubideak babesteko organo judizialari bermea eskatzeko eskubidea da. Ondorioz, uler daiteke ordenamendu juridikoak hiritarren eskura ainbat eskubide jartzen dituela. Horiek babesteko, justiziara joan beharra dago, bertan prozesuak egiteko eta horiek nola egin jakiteko.

2.2. A.K.-ren irizpideak.

Hiritarrak babes judiziala eskatzea, prozesu eta irizpide batzuk jarraitzea dakar. 4 irizpide daude:

- Antiformalismoarena: prozesu batzuk daude berme horiek egin eta eskatzeko. Kontutan hartu behar da prozesuak tresna edo instrumentu bat direla, eta beraz, ezin dutela tutoretza mugatu. Bestalde, prozesuko akatsak bai konpondu daitezke.
- Helburua: prozesua errespetatu behar da baina formalismoa alde batera utziz. Oinarrikoena eskubideak errespetatzea da.
- Proporzioan ulertzen da formalitate falta hori. Izan ere, formalitatea ez betetzeak, ondorio proporzionalak ekarriko ditu. Ikusi beharra dago zer falta den edo zer ez den bete prozesuaren barruan, eta hori konpondu daitekeen edo ez.
- Arbitraritate eza: ebazpen arrazoituak eman behar dira (epaileen aldetik).

2.3. Tutoretza judizialaren edukia: eskubide zehatzak.

2.3.1. Sistema judizialera iristeko eskubidea: prozedura eskubidea:

Sistema judizialera iristeko, bermea eskatzeko bezalako prozesu bat jarraitu behar da:

- Nork du eskubidea hau aurrera eramateko?

Pertsona fisikoek eta juridikoek dute. Ez du inporta atzerrikoa den edo ez, izan ere, bere interesa urratua izan den horrek tarteratu dezake prozesua. Babesa, ebazpen judizialek lortzen dute, eta epaile batek fondoari buruz epaituko du. Hori, 2 kasutan izan ezik gerta daiteke.

- ❖ Batetik, epaitegi batean epaileak eskubidea urratu zaidan edo ez esatea.

Horretarako, epai/sententzia bat erabiliko du epaileak, eta fondoari buruz erabaiko du.

- ❖ Bestetik, demanda horren orde, bide desegokia erabiltzea eskubide hori defendatzeko (konpetentea ez den epaitegi batean demanda hori eramatea...).

2.3.2. Prozesuan beharrezkoak diren froga medioak erabiltzeko eskubidea.

Prozesu horretan eskubidea daukagu esateko zer frogak erabili nahi ditugun edo ez. Horrek, mugak ditu, alderdiak proposatu dezakeelako froga batzuk erabili nahi dituela. Baina horrek ez du esan nahi epaileak horiek onartuko dituenik. Epaileak horietako froga batzuk onartu ditzake.

Garrantzitsua da, frogak ez badira kontutan hartzen, epaileak horri arrazoiren bat ematea. Horrela, ez da tutoretza judiziala apurtuko, epaileak arrazoien bidez motibazioa adierazten badu.

2.3.3. Epaia exekutzeko eskubidea.

Sententzia epaira eramaten lortzen dugunean, hori exekutzeko eskubidea lortuko dugu. Hala ere, gerta daiteke hori ezin ahal exekutatzea hainbat arrazoi direla eta.

2.3.4. Legean aurrikusiriko helegiteak aurkezteko eskubidea.

Legeak aurreikusiko du zein kasutan hartuko du parte helegiteak. Esan beharra dago, epaiketetatik ematen diguten erresoluzioetan adierazi beharko dela helegitea tarteratu dezakegun, zein epetan eta zein kondiziotan.

2.4. Legeak aurrikusiriko epaile arrunta izateko eskubidea.

E.K.-ko 24.2. art.-an jasotzen da eta oinarritzko hiru ondorio ditu. Horietan esaten da, botere judizialak adieraziko duela zein den materia eta konpetentziari dagokion epailea; hau da, epaileak botere judizialeko parte izan behar duela.

Aurreko artikuluekin lotuta, 117. art. hartuz, ikus daiteke organo edo epaile arruntak izan behar direla. Ezin dira salbuespenezko auzitegiak erabili. Gainera, legea aurreikusitakoa denez, botere judizialak esango digu zein epaile tokatuko zaigun (materia eta lurraldetasunaren arabera; hori epaile arrunta izango da).

Salbuespena, terrorismo kasuetan ematen da (Auzitegi Nazionalak eramaten ditu), ulertzen delako gizartearentzak garrantzia duela horrek, espainiar lurraldea osoan zehar ematen delako.

3.- LEGEZKOTASUN PRINTZPIOA, ARLO PENALEAN ETA ADMINISTRAZIOAREN ZEHATZEKO AHALMENAREN ARLOAN.

3.1. K.E. 25. artikulua: zehapen arloko legezketasun printzipioak 4 oinarri ditu:

- Lege erreserba:

Legezketasun printzipioa da apikagarria, arlo penalean eta arlo administratiboan. Lege erreserba hori, organikoa edo arrunta izan daiteke (arautu beharreko legearen arabera izango da).

Arlo administratiboari dagokionez, zalntzak daude. Izan ere, ahalmen zehatzailea du, baina muga batzuen barruan (arlotik konparatuz).

- ❖ Administrazioa zigorrez, ezin dute askatasuna kendu.
- ❖ Beharrezkoa da zehapenaren prozeduraren berri ematea.
- ❖ Kontuan eduki administrazioak ipnitako zehapen horrek lege batean oinarrituta dagoela.

- Tipizitate printzipioa:

Legeari jasoa egon behar da, zehapena ipintzeko (aurrekoaren antzekoa da).

- “Non vis in idem” printzipioa:

Egitate bat, ezin da bi alditan zigortu. Debeku hau, arlo administratiboan eta penalean aplikatzen da (E.K.-ko 25.1. art.-an jasoa).

- Arau kaltegarriaren atzeraeraginkortasun ezaren printzipioa:

Inor ezin da zigortu, egitatea gertatu zen unean, egitate hori ez bazen delitu.

3.2. K.E. 24. artikulua: berme eta eskubideak:

Eremu penalean soilik aplikatu daiteke. A.K.-ak zehaztuko du zuzenbide administratibo zehatzailean noiz aplikatuko den. 3 berme edo eskubide ditu:

- Defentsa eskubidea: aplikagarria da arlo penal eta administratiboan.
- Errugabetasun printzipioaren eskubidea: A.K.-ak dio oinarritzko eskubidea dela eta aplikagarria dela edozein prozesutan (penal eta administratibo). Hau, botere desberdinek errespetatu behar dute. Gainera, frogaren karga, akusatzaileak duela esan daiteke, printzipio honetan oinarrituz.
- Tutoretza judizialera iristeko bermeak: arlo penal eta administratiboan bermatu behar dira.